## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 333700 MUSEOAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

| PROGRAMAREN MEMORIA | MEMORIA DEL PROGRAMA |
|---|---|

### I. MEMORIA

"Museoak" programa administrazio unitate bakar batek kudeatzen du; hain zuzen ere, Museo eta Arkeologia Zerbitzuak. Foru titulartasuneko museo eta horiei lotutako edo antzeko zentro hauek biltzen ditu:

- Arma Museoa, Arte Ederren Museoa, Natura Zientzien Museoa eta Bibat Museoa, Fournier Karta museoa eta Arkeologia museoak biltzen dituena.
- Amarika aretoa, non argazkilaritza eta irudiaren esparrura mugatutako arte proiektuak bultzatu eta zabaltzen diren.
- La Hoya eta Iruña-Veleiako parke arkeologikoak.
- Varonatarren dorrea (titulartasun pribatukoa izan arren, hitzartuta dago).
- Aiarako Kexaako Monumentu Multzoan ere hainbat museo jarduera kudeatzen jarraitu da (bisita gidatuak eta ondasun higigarrien bilduma kontrolatzeko eta kontserbatzeko bisitak).

Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak museoen arloan 2024ko ekitaldian garatutako programak, Kultura eta Kirol Sailak ezarritako helburuen betetze mailan islatzen dira, esparru horretan indarreko legediak (*Euskadiko Museoei buruzko 7/2006 Legea* eta *Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea*) ematen dituen eskumen, betebehar eta eginkizunak aplikatuz eta garatuz.

**1. HELBURUA.- AFAren museoak eta antzeko zentroak kudeatzea.**

Museo guztietan bezala, museoen foru sarearen helburu nagusia da hura osatzen duten zentroetako funtsak eta bildumak biltzea, eskuratzea, kontserbatzea, inbentarioa egitea, katalogatzea, zaharberritzea, modu ordenatuan erakustea eta zabaltzea.

### I. MEMORIA

El programa "Museos" está gestionado por una única unidad administrativa, el Servicio de Museos y Arqueología. Engloba a los siguientes museos de titularidad foral y centros vinculados o asimilados:

- Los Museos de Armería, Bellas Artes, Ciencias Naturales y el Museo Bibat, que aglutina los museos Fournier de Naipes y de Arqueología.
- La Sala Amárica, donde se impulsan y difunden proyectos artísticos centrados en el campo de la fotografía y la imagen.
- Los Parques Arqueológicos de La Hoya e Iruña-Veleia.
- La Torre de los Varona, que pese a ser de titularidad privada se encuentra conveniada.
- También se han continuado gestionando diversas actividades de carácter museístico en el Conjunto Monumental de Quejana, en Ayala (visitas guiadas y de control y conservación de su colección de bienes muebles).

Los programas desarrollados por el Servicio de Museos y Arqueología de la Diputación Foral de Álava en el campo de los museos durante el ejercicio de 2024 son reflejo del grado de cumplimiento de los objetivos previstos por el Departamento de Cultura y Deporte, en aplicación y desarrollo de las competencias, obligaciones y funciones que en dicho campo otorga la legislación vigente (Ley 7/2006, de *Museos de Euskadi* y Ley 6/2019, de *Patrimonio Cultural Vasco*).

**OBJETIVO 1.- Gestionar los Museos y centros asimilados de la DFA.**

Como en todo museo, el objetivo esencial de la red foral de Museos en su conjunto es la reunión, la adquisición, la conservación, el inventario, la catalogación, la restauración, la exhibición ordenada y la difusión de los fondos y colecciones de cada uno de los centros que la conforman.

## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 333700 MUSEOAK

Eskuratzeetarako partida espezifikorik ez dagoen arren, bildumei **ekarpenak** egiten jarraitzen da beste prozedura batzuen bidez:

- Arte Ederren Museoa: partikular batek koadro bat eman du: *Manuel de Araneguiren erretratua* Ramón Alonso Verásteguik margotutakoa.
- Natura Zientzien Museoa: 2.840 ale berri eskuratu dira, beraz, guztira, 523.424 ale daude katalogatuta museoan. 220.366 erregistro berri informatizatu dira, eta bildumetara 1.148 espezie berri, 194 mota eta 282 figuratu gehitu dira.
- Arma Museoa: ez da ezer gehitu bildumara.
- BIBAT-Fournier Karta Museoa: 2024an zehar beste 42 karta sorta sartu dira, bildumagile pribatuei esker. Horiek guztiak erregistratu, deskribatu eta katalogatu dira. Horrez gain, lanean jarraitu da sarrera-data desberdina duten 4.000 erregistroko lote baten informazioa eguneratzeko.
- BIBAT-Arkeologia Museoa: araudi arkeologikoa betez, 208 kutxa sartu dira material berriekin. Dagozkien gordailu aktak izapidetu dira eta dagozkien inbentarioak jaso dira, zeinak egiaztatzeko eta baliozkotzeko prozesuan baitaude. Gainera, antzinako materialen datu baseen katalogazioa berrikusten eta eguneratzen jarraitzen da.

**1.1. ekintza. AFAko museoen zerbitzu kartaren ezarpenaren eta jarraipena.**

2023an lortutako datu partzialen ondoren (azken lauhilekoan bakarrik), 2024an askoz ere modu zabalagoan jaso ahal izan da foru aldundiaren museoetara joandako bisitarien iritzia (1.174 inkesta), eta bisita gidatuen eta tailerren zerbitzuak erabiltzen dituzten taldeen arduradunen iritzia

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

Pese a que no se cuenta con una partida específica para adquisiciones, se siguen produciendo nuevas **incorporaciones** a las colecciones por otros procedimientos:

- Museo de Bellas Artes: donación de un cuadro por un particular: “Retrato de Manuel de Aranegui”, pintado por Ramón Alonso Verástegui.
- Museo de Ciencias Naturales: El incremento en nuevas adquisiciones ha sido de 2.840 ejemplares, lo que eleva a 523.424 el total de ejemplares catalogados en el museo. Se han informatizado 220.366 registros nuevos, incrementándose las colecciones en 1.148 nuevas especies, 194 tipos y 282 figurados o citados.
- Museo de Armería: no se han producido nuevas incorporaciones a la colección.
- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: A lo largo de 2024 se ha producido el ingreso de 42 nuevas barajas procedentes de donaciones de coleccionistas privados, que se han registrado, descrito y catalogado. Además, se ha continuado trabajando en la actualización de la información de un lote de 4.000 registros con diferente fecha de ingreso.
- BIBAT-Museo de Arqueología: en cumplimiento de la normativa arqueológica se ha producido el ingreso de 208 cajas con nuevos materiales, para los que se han tramitado las correspondientes actas de depósito y se han recepcionado los correspondientes inventarios, que están en proceso de comprobación y validación. Además, se continúa trabajando en la revisión de la catalogación y actualización de las bases de datos de materiales antiguos.

**Acción 1.1. Seguimiento de la implantación de la Carta de Servicios de los Museos de DFA.**

Tras los datos parciales obtenidos en 2023 (sólo del último cuatrimestre), en 2024 se ha podido testar de forma mucho más amplia la opinión de los visitantes de los museos forales (1174 encuestas) y la opinión de las personas responsables de los grupos que utilizan nuestros

(ikastetxeak gehienbat, 130 inkesta egin dituztenak).

Laguna foru sareko bost museoen artean banatuta egon da, eta emakumeen erantzun gehiago jaso dira (% 51,3), batez besteko adina 45,5 urte izanda.

Bisitarientzako inkestaren bost galderak jasotako arretari, museoen informazioari eta instalazioei, eta erakusketen kalitateari buruzkoak izan dira. Horrela, azken balorazioa eskatu zaie. Lortutako notak oso altuak izan dira (9,36 batez beste), BIBAT-Arkeologia museoaren 8,77 eta Natura Zientzien Museoaren 9,76 artekoak.

Azaldutako edukien interesari eta kalitateari buruz, eskola curriculumari egokitzen diren eta gogobetetze maila orokorrari buruz galdetu zaie taldeei. Emaitzak oso altuak ere izan dira; galdera guztietan 9 baino gehiago atera dute (9,3 batez beste).

**1.2. ekintza. Bilduma foralen biltegiratze eta kontserbazio prebentiboko baldintzak hobetzea.**

Esparru horretan lanean jarraitu dute, hezetasun erlatiboaren eta tenperatuaren datuak kudeatzen, eta museoko gordailuetan parametro horiek neurtzeko kontrol zunda berriak erosten.

Gainera, adierazi behar dugu jarritako hezetasun kengailuari esker, BIBAT Museoaren arkeologia funtsen egoera hobetu dela; harri litografikoen funtsak eta karta sorten matrizeak berrantolatu direla, eta Arma Museoaren ehunen bilduman sitsetarako feromona tranpak jartzen eta kontrolatzen jarraitzen dela.

Bestalde, museo guztietatik zenbait pieza eta obra bidali dira Zaharberrikuntza Zerbitzura, trata ditzaten. Hango langileekin etengabe ari gara elkarlanean.

Kanpoko biltegiratze eremuei dagokienez:

servicios de visitas guiadas y talleres (centros escolares en su mayoría, con 130 encuestas).

La muestra ha estado regularmente repartida entre los cinco museos de la red foral, con un cierto predominio de respuestas procedentes de mujeres (51,3%), con una media de edad de 45,5 años.

Las cinco preguntas de la encuesta para visitantes hacían referencia a la atención recibida, a la información e instalaciones de los museos, a la calidad de las exposiciones, solicitando una valoración final. Las notas obtenidas han sido muy altas (9,36 de media), oscilando entre los 8,77 del BIBAT-Arqueología a los 9,76 del Museo de Ciencias Naturales.

A los grupos se les preguntaba por el interés y calidad de los contenidos explicados, su adecuación al currículo escolar y el grado de satisfacción general. Los resultados han sido también muy altos, superando el 9 en todas las preguntas (9,3 de media).

**Acción 1.2. Mejora de las condiciones de almacenaje y conservación preventiva de las colecciones forales.**

Se ha continuado trabajando en este ámbito con la gestión de los datos de humedad relativa y temperatura, así como con la compra de nuevas sondas de control para medir esos parámetros en los diferentes depósitos de los museos.

Además, se debe señalar que la instalación de deshumidificadores ha mejorado las condiciones de los fondos de Arqueología del Museo BIBAT; que se han reorganizado los fondos de piedras litográficas y matrices en el de Naipes; y que se continúa con el control e instalación de trampas de feromonas para polillas en la colección de textiles del Museo de Armería.

Por otra parte, desde todos los museos se han enviado para su tratamiento diversas piezas y obras al Servicio de Restauración, con cuyo personal se colabora de forma permanente.

En cuanto a los espacios de almacenaje externos:

- **Ibilgailuen atalean** jarduketa proposamen zehatza ezarri da, Ur Zerbitzuaren antzinako biltegian koadroetarako orraziak jartzeko.
- **Artapadura kaleko biltegian** Zubigarai kalean utzitako Zientzia Museoaren bildumen tokialdaketa amaitu da (taxidermiak izan ezik).
- **Arkeologia biltegian** (Errege-erregina Katolikoen kalea) eremuen berrantolaketan eta apalategi berrien instalazioan lan egiten hasi dira, biltegiratzeko ahalmena hobetzeko.

**1.3. ekintza. Irisgarritasuna hobetzeko jarduketen programa.**

BIBAT-Arabako Arkeologia Museoaren beira-arasa birtuala dagoeneko amaitu da lehen solairuan. Horri esker, bisitarien telefono mugikorretik zuzenean irakurri ahalko dira kartela eta testu guztiak.

Horrez gain, beste museoetan zenbait alderdi ere lantzen ari dira:

- Argiztapena hobetzea eta kartela irakurterrazagoak jartzea BIBAT-Fournier Karta Museoan. Horrela, informazio panel berriak jarri dira, kartak kontserbatzeko beharra gogorarazteko.
- Argiztapena hobetzea eta edukiak berritzea anbar aretoan eta zoologia eremua Natura Zientzien Museoan.

**1.4. ekintza. Arabako museoen kultura ondarearen zabalkundea eta sozializazioa.**

Museoen foru sarearen funtsezko helburuetako bat da. Erakusketa iraunkorrak hobetu eta berritzean hezurmamitzen da, bai eta aldi baterako erakusketak antolatzean, ikerketa proiektuetan lankidetzan aritzean eta askotariko hezkuntza jarduerak eskaintzean ere.

Jarduera horietan guztietan, gizarte eta kultura aniztasuna sustatzeko egiten da lan, bai eta emakumeek arteari, historiari eta jarduera

- En el **Parque Móvil**, se ha definido una propuesta de actuación concreta para instalar peines para cuadros en el antiguo almacén del Servicio de Aguas.
- En el **depósito de la calle Artapadura**, se ha concluido el traslado de las colecciones del Museo de Ciencias depositadas en Puente Alto (a excepción de las taxidermias).
- En el **almacén de Arqueología** (calle Reyes Católicos) se ha empezado a trabajar en la reorganización de espacios y en la instalación de nuevas estanterías, para mejorar su capacidad de almacenamiento.

**Acción 1.3. Programa de actuaciones para mejorar la accesibilidad.**

La vitrina virtual del BIBAT-Museo de Arqueología de Álava ya se ha concluido para la primera planta, lo que va a permitir la lectura de todas sus cartelas y textos directamente desde los terminales móviles de los visitantes.

Además, también en los otros museos se está trabajando en diversos aspectos:

- Mejora de iluminación y sustitución de cartelas más legibles en el BIBAT-Museo Fournier de Naipes, con nuevos paneles informativos recordando las necesidades de conservación de los naipes.
- Mejora de iluminación y renovación de contenidos en la sala de ámbar y en la zona de zoología del Museo de Ciencias Naturales.

**Acción 1.4. Difusión y socialización del patrimonio cultural de los Museos de Álava.**

Es uno de los objetivos fundamentales de la red foral de museos. Se materializa en la mejora y renovación de las exposiciones permanentes, así como en la organización de exposiciones temporales, la colaboración en proyectos de investigación, y en la oferta de actividades educativas diversas.

En todas estas actividades se trabaja con el objetivo de fomentar la diversidad social y cultural, así como la visibilización de la

zientifikoari museoen eremuan egiten dioten ekarpena ikusarazteko ere.

**Bilduma iraunkorren** gaineko jarduketen artean, oro har, Eusko Jaurlaritzaren EMSIME-MUSEOTIK datu basean erregistroa eguneratzeko eta funtsak katalogatzeko lanekin jarraitzea aipatu behar da.

- Arte Ederren Museoa: Zaharberritze Zerbitzura hainbat egileren 12 koadro bidali dira, baita Celaya Fundazioaren bildumako Goyaren hainbat grabatu ere.

- Natur Zientzien Museoa: aldaketa batzuk egin dira erakusketa iraunkorrean. Horrela, aldi baterako erakusketa aretoen erabilera baldintzak hobetu dira, erdiko elementu finko batzuk kendu baitira; zoologia sektorea berriro errotulatu da, pieza garrantzitsuentzako espazio berri bat jarri da; eta anbar aretoa erabat birmoldatu da, argiztapen baldintzak eta ikus-entzunezko baliabideak hobetuz.

- BIBAT- Fournier Karta Museoa: kartelak berritzeko prozesuan daude, haien tamaina handituz eta argiztapena hobetuz. Gainera, ikus-entzunezko edukien eguneratzea amaitu da.

**Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko proiektuetan lankidetzan** aritzeari dagokionez, gai espezifiko bakoitzean, honako hauek hartu behar dira kontuan: ikertzaileei eman beharreko arreta, kanpo proiektuetan parte hartzeko funtsak mailegatzea eta hainbat motatako kontsultak egitea, bai materialei edo piezei buruz, bai dokumentazioari buruz, edo museoetako liburutegietan bertan:

- Arte Ederren Museoa: lan baten maileguak jarraitzen du Caixa Forum-en erakusketa ibiltari batera, eta gainera, sei lan mailegatu dira *Clemente eta Jesús Arraiz* erakusketarako, Bilboko Ondare Aretoan.

aportación de las mujeres al arte, a la historia y a la actividad científica en el ámbito de los museos.

Entre las actuaciones sobre las **colecciones permanentes** se deben citar, en general, la continuidad de los trabajos de actualización del registro y catalogación de fondos en la base de datos EMSIME-MUSEOTIK, del Gobierno Vasco.

- Museo de Bellas Artes: se han enviado al Servicio de Restauración, para su tratamiento, 12 cuadros de autores diversos, así como varios grabados de Goya de la colección de la Fundación Celaya.

- Museo de Ciencias Naturales: se han efectuado algunos cambios en la exposición permanente. Así, se han mejorado las condiciones de uso en las salas de exposiciones temporales al retirar diversos elementos fijos centrales; se ha procedido a rotular de nuevo el sector de zoología, instalándose un nuevo espacio para piezas relevantes; y se ha remodelado completamente la sala de ámbar, mejorando sus condiciones de iluminación y sus recursos audiovisuales.

- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: se están en proceso de renovación de las cartelas, ampliando su tamaño y mejorando su iluminación. Además, se ha concluido la actualización de contenidos audiovisuales.

En cuanto a la **colaboración en proyectos de investigación y difusión científica** en cada una de sus temáticas específicas, se debe considerar la atención a personas investigadoras, el préstamo de fondos para su participación en proyectos externos y las consultas de diverso tipo, tanto sobre los propios materiales o piezas, como sobre su documentación, o en las propias bibliotecas de los museos.

- Museo de Bellas Artes: continúa el préstamo de una obra para una exposición itinerante de *Caixa Forum*; y, además, se han prestado otras seis obras para la exposición *Clemente y Jesús Arraiz*, en la Sala Ondare de Bilbao.

- Natura Zientzien Museoa: doktorego testi batean eta beste hamahiru ikerketa proiektutan lagundu da. 95 ikertzaile adituren kontsultei eta 34 herritarren aholku eskaerei erantzun zaie. Eta, azkenik, 74.346 online kontsulta jaso dira museoak GBIF (Global Biodiversity Information Facility) biodibertsitatearen nazioarteko informazio sarearen Espainiako nodoan mantentzen eta kudeatzen dituen sei dataset-etan. Guztira, Museoaren bildumei buruzko datuak aipatzen dituzten 287 artikulu zientifiko dira. Horrez gain, ikerketarako 108 aleren sei mailegu aktibo mantendu dira (ez erakusketarako).
- Arma Museoa: Ikertzaileen 20 kontsultei erantzun zaie, bai aurrez aurre, bai telematikoki. Horrez gain, Eibarko Armagintzaren Museoko *Museoko ertz zorrotzak* (3 sable) eta Gasteizko Terrorismoaren Biktimen Omenerako Zentroko *Magnizidioak* (errebolber bat, zeinaren bidez Antonio Cánovas del Castillo hil zuten) erakusketarako piezak ere mailegatu dira.
- BIBAT-Fournier Karta Museoa: ikertzaileen 58 kontsultari erantzun zaie, aurrez aurrez zein baliabide telematikoen bidez. Era berean, museoaren funtsekin loturiko hiru ikerketa proiektutan ere aholkatu eta lagundu da.
- BIBAT-Arkeologia Museoa: ikerketa proiektuak egiten ari ziren 42 pertsonari eman zaie arreta aurrez aurre. Hori dela-eta, laborategia 497 lanalditan erabili da, lanegun bakoitzeko 1,97 ikertzaile batez beste. Horrez gain, beste 68 kontsultari ere erantzun zaie. Eta, azkenik, zenbait aztarnategitako material arkeologikoak mailegatu dira, ikerketa behar bereziei erantzuteko, zein aldi baterako hiru erakusketetan parte hartzeko.

**Hezkuntza jardueren proposamenaren** esparruan, aurreko urteetan bezala, bi



- Museo de Ciencias Naturales: se ha colaborado con una tesis doctoral y con otros trece proyectos de investigación. Se han atendido consultas de 95 investigadores especialistas y peticiones de asesoramiento por parte de 34 ciudadanos. Además, se han recibido 74.346 consultas ***on line*** en los seis ***datasets*** que el museo mantiene y gestiona en el nodo español de la red internacional de información en Biodiversidad GBIF (Global Biodiversity Information Facility). Suponen un total de 287 los artículos científicos que mencionan datos referentes a las colecciones del Museo. Además, se han mantenido activos seis préstamos de 108 ejemplares para investigación (no para exposición).
- Museo de Armería: Se han atendido unas 20 consultas de investigadores, de forma tanto presencial como telemática. Además, se han prestado piezas para las exposiciones *Los filos del Museo*, del Museo de la Industria Armera de Eibar (3 sables) y *Magnicidios*, del Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo de Vitoria-Gasteiz (1 revólver, con el que se asesinó a Antonio Cánovas del Castillo).
- BIBAT-Museo Fournier de Naipes: se han atendido 58 de consultas de investigadores, de forma presencial y medios telemáticos. Además, se ha asesorada y colaborado con tres proyectos de investigación relacionadas con los fondos del museo.
- BIBAT-Museo de Arqueología: se ha atendido de forma presencial a 42 personas que realizaban proyectos de investigación, lo que ha supuesto el uso del laboratorio durante 497 jornadas de trabajo, a una media de 1,97 investigadores por día laborable. Además, se han atendido otras 68 consultas de diversa índole. Y, por último, se han prestado materiales arqueológicos de diversos yacimientos tanto para atender necesidades especiales de investigación como para participar en 3 exposiciones temporales.

En el marco de la **propuesta de actividades educativas** se han ofertado, como en años

multzo handi eskaini dira, publiko desberdinentzat:

- Eskola programa: prestakuntza maila desberdinetara egokitua eta hainbat modalitaterekin, hala nola bisita tailerrak, bisita interaktiboak eta bisita gidatuak foru museoetan.
- Hedapen orokorreko programa: familientzako edo noizbehinkako publikoentzako. Hainbat proposamen egin dira, hala nola familia bisitak, urtebetetzeak ospatzea museoan, bisita tematikoak Aste Santuan, bisita bereziak eta udalekuak udan, Gabonetako tailerrak eta bisitak.

Horrela, foru museoetan, guztira, 543 bisita eta tailer egin dira (% 55,06 eta % 44,94 hurrenez hurren). Guztira, 19.312 pertsonak parte hartu dute, 2023an baino % 9,7 gehiago, eta horien guztien % 52,43 emakumeak izan dira. Jarduera horiek euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira, eta erabiltzaileek aukeratzen dute zer hizkuntza erabili (% 41,44k euskara aukeratu du, arlo akademikoak funtsean; gainerako % 58,56k, gaztelania).

Halaber, eta bereziki, Museoen Nazioarteko Egunarekin, *Arkeologiaren Europako Jardunaldi*ekin, Museoetako Udako Programarekin edo *Ondarearen Europako Jardunaldi*ekin lotutako berariazko gaiei buruzko jarduera ere egin dira. Programa horietan guztietan publikoaren erantzuna oso positiboa izan da. Nabarmendu behar dira bereziki OEJak, izan ere, 28 jarduera antolatu ziren eta 602 pertsonak parte hartu zuten. Horietatik, % 52,43 emakumeak izan ziren, eta jardueren % 35,71 euskaraz egin ziren.

**Kexaako Monumentu Multzoa**ri dagokionez, bisita gidatuen programa berria eskaini zen udan eta udazkenean, eta 933 pertsonak parte hartu zuten, euskaraz zein gaztelaniaz eskainitako 52 bisitetan (hala ere, horien % 17,31 bakarrik egin zen azkenean euskaraz). Emakume kopurua gizonena baino handiagoa izan zen berriro: % 51,98.



anteriores, dos grandes bloques destinadas a públicos diferentes:

- Programa escolar: adaptado a los diferentes niveles formativos y con diversas modalidades como talleres, visitas interactivas y visitas guiadas en el conjunto de los museos forales.
- Programa de difusión general: destinado a público familiar u ocasional, de nuevo también con diversas propuestas como visitas en familia, cumpleaños en el Museo, visitas temáticas en Semana Santa, visitas especiales y colonias en verano, talleres y visitas de la campaña de Navidad.

Así, en el conjunto de los museos forales se han realizado un total de 543 visitas y talleres (55,06 y 44,94% respectivamente), con una participación global de 19.312 personas (un 9,7% más que 2023) y con un 52,43% de presencia femenina. Todas estas actividades se ofertan tanto en euskera como en castellano, y son los usuarios los que determinan el idioma utilizado (un 41,44% ha elegido euskera, fundamentalmente en el ámbito académico, mientras que el 58,56% restante elige castellano).

Además, y con carácter especial, se han realizado actividades de temática específica vinculadas al Día Internacional de los Museos; a las Jornadas Europeas de Arqueología; al Programa de Verano en los Museos; o a las Jornadas Europeas de Patrimonio. En todos estos programas la respuesta del público ha sido muy positiva, destacando especialmente las JEP, con 28 actividades en las que participaron 602 personas (de ellas el 52,43% fueron mujeres y un 35,71% de las actividades se desarrollaron en euskera).

En cuanto al **Conjunto Monumental de Quejana**, se ofreció un nuevo programa de visitas guiadas en verano y en otoño, en el que tomaron parte 933 personas, en 52 visitas ofertadas tanto en euskara como en castellano (aunque finalmente sólo un 17,31% se realizó en euskera). La presencia femenina fue de nuevo ligeramente mayoritaria, con un 51,98%.

**Bisitarien datu orokorrei dagokienez**, azken ekitaldietako goranzko joera eten da, eta bisita kopurua zertxobait behera egin du 2023. urtearen aldean. Horrela, 2024an 130.407 pertsona joan ziren AFAko museoetara eta haiei lotutako zentroetara (2023an baino % 0,7 gutxiago, 131.320 joan baitziren).

Por lo que respecta a los **datos globales de visitantes**, se ha frenado la dinámica ascendente de los últimos ejercicios y las visitas ha descendido ligeramente con respecto a 2023. Así, en 2024 han acudido a los museos de la DFA y a sus centros asociados, **130.407 personas** (un 0,7% menos que los 131.320 visitantes de 2023).

Museoen arabera, honela banatzen dira:

Por museos su distribución es la siguiente:

| | |
|---|---|
| BIBAT / BIBAT | 58.137 |
| Arte Ederrak / Bellas Artes | 21.069 |
| Natura Zientziak / Ciencias Naturales | 14.679 |
| Arma Museoa / Armería | 15.337 |
| Hoya / La Hoya | 4.757 |
| Iruña Veleia / Iruña Veleia | 4.119 |
| Amarika aretoa / Sala Amárica | 7.536 |
| Varonatarren dorrea / Torre Varona | 4.773 |
| **GUZTIRA** | **130.407** |

**Generoaren araberako** banaketari erreparatuz gero, ohikoa den bezala, emakumezko bisitariak zertxobait nagusitzen dira ( % 52) gizonezkoen aldean.

En cuanto a su **distribución por género**, como viene siendo habitual, existe un ligero predominio de visitantes femeninos (52%) sobre los masculinos.

Bestalde, foru museoetan **egindako oroimenezko produktuen edo merchandising produktuen** salmentak 4.383,40 € izan dira, iaz saldutakoa baino % 4,7 gutxiago.

Por su parte, las **ventas de productos de recuerdo o *merchandising*** realizadas en los Museos forales han ascendido a la cantidad de 4.383,40 €, un 4,7% menos de lo vendido el pasado año.

**Aldi baterako erakusketei** dagokienez, formatu eta eduki desberdinetako 19 antolatu dira:

En lo que respecta a las **exposiciones temporales**, se han organizado 19 de diferentes formatos y contenidos:

Arte Ederren Museoa. 2 erakusketa:

- "Ibilbideak" (2024ko maiatzetik 2025eko urtarrilera).
- "María Antonia Proietti, modelo italiarra” (2024ko maiatzetik 2025eko urtarrilera).

Museo de Bellas Artes. 2 exposiciones:

- Mayo de 2024 a enero de 2025: “Trayectorias”
- Mayo de 2024 a enero de 2025: “María Antonia Proietti, la modelo italiana”

Natura Zientzien Museoa: 2 erakusketa:

Museo de Ciencias Naturales. 2 exposiciones:

- "Photoformak", Alavesiarekin lankidetzan (apiriletik irailera).
- "Nire piezarik gustukuena" haurrentzako marrazki-lehiaketa, Alavesiarekin lankidetzan (2024ko irailetik aurrera).

BIBAT-Arqueologia Museoa. 5 erakusketa:

- "Zehatz-mehatz: San Joan Ante Portam Latinam: hezur eta paradigma hautsiak" (2023ko abendutik 2024ko azarora).
- "Arroxeta: historiaurreko herrixka eta galtzada erromatarra". ADIFekin lankidetzan (2024ko irailetik 2025eko urtarrilera).
- "Blas Arratibel artisautza lehiaketa" (azarotik abendura).
- Iruña-Veleia. Bisitarien zentro berriaren proiektu lehiaketa (2024ko abendutik 2025eko urtarrilera).
- Arkeologia eta Manuel Iradier Txango elkartea. Manuel Iradier txangozale elkartearekin lankidetzan, 75. urteurrena dela eta (2024ko ekaina).

BIBAT- Fournier Karta Museoa: 2 erakusketa.

- "Crayón. marrazkilari ezkutu bat urratsen atzetik. Ezkutuko marrazkilari baten urratsen ondoren ". Komedialdiarekin lankidetzan (maiatzetik azarora).
- "Emakume kartagileak. Memoria bizia". Hegoalde Gizarte Etxean birjarpena. Adurtzakoak elkartearekin eta Gasteizko Udalarekin lankidetzan (maiatza).

Amarika aretoa: 8 erakusketa.

- "Eta azkenean hegan egin" (Josetxo Silgo, otsailetik maiatzera).
- "Mademoiselle Basque" (barne aretoa, otsailetik maiatzera).
- "Ikaro" (Irene Zottola, maiatzetik ekainera)
- "Automobilez Gorbeia mendira lehen aldiz igo izanaren mendeurrena" (barruko aretoa, ekaina).



- Abril a septiembre: *"Photoformas"*, en colaboración con *Alavesia*.
- Desde septiembre de 2024: *X Concurso de dibujo infantil "Mi Pieza Favorita"*, en colaboración con *Alavesia*.

Museo BIBAT-Arqueología. 5 exposiciones:

- Diciembre de 2023 a noviembre de 2024. *Zehatz-meatz VI San Juan Ante Portam Latinam. Huesos y paradigmas rotos.*
- Septiembre de 2024 a enero de 2025: *"Arrojeta: poblado histórico y calzada romana"*. En colaboración con ADIF.
- Noviembre a diciembre: *"Certamen Artesanía Blas Arratibel"*.
- Diciembre de 2024 a enero de 2025: *Iruña-Veleia. Concurso de proyectos del nuevo centro de visitantes*.
- Junio de 2024: *Arkeologia eta Manuel Iradier txango elkartea*. En colaboración con la sociedad Excursionista Manuel Iradier por su 75 Aniversario.

Museo BIBAT-Fournier de Naipes: 2 exposiciones.

- Mayo a noviembre: *"Crayón. Marrazkilari ezkutu baten urratsen atzetik. Tras los pasos de un dibujante oculto"*. En colaboración con Komedialdia.
- Mayo: *"Naiperas. Expresión de una memoria viva"*. Reposición en el Centro Cívico Hegoalde. En colaboración con la Asociación *Adurtzakoak* y el Ayto. de Vitoria-Gasteiz.

Sala Amárica: 8 exposiciones.

- Febrero a mayo: *Y al fin volar* (Josetxo Silgo)
- Febrero a mayo: *Mademoiselle Basque* (sala interior).
- Mayo a junio: *Ícaro* (Irene Zottola)
- Junio: *Centenario de la primera ascensión al monte Gorbea en automóvil* (sala interior).

- “Tximist Everest espedizioa” (ekainetik irailera).
- “Mercedes Benz fabrika Gasteizen, 70. urteurrena” (iraila).
- “Arabaclick 2024” (urritik azarora).
- “Ellas, Nosotras - Beraiek, Geu” (2024ko azarotik 2025eko otsailera)

Bestalde, museoek **20 dibulgazio jarduera** antolatu dituzte (batzuetan elkarte laguntzaileekin lankidetzan); esaterako, hitzaldiak, konferentziak, aurkezpenak, tailerrak edo bisita espezializatuak.

Gainera, museoetako aretoak eta espazioak 45 aldiz laga dira **kanpoko jarduerak antolatzeko**.

Arte Ederren Museoko espazioak ere utzi dira irratsaioak (3), bideoklipak (3), argazki-saioak (2) edo film luzeak (2) grabatzeko.

Eta azkenik, **emakumeen presentzia handia izan da**. Aldi baterako erakusketen artean bostetan protagonista izan dira, eta, gainera, beste lautan, emakumeek artista eta/edo erakusketa koordinatzaile gisa hartu dute parte. Museoetan zuzenean edo zeharka antolatutako dibulgazio jardueretan ere presentzia nabaria izan dute.

- Junio a septiembre: *Expedición Tximist Everest*
- Septiembre: *Mercedes Benz fábrica Vitoria 70 aniversario.*
- Octubre a noviembre: *Arabaclick 2024*
- Noviembre 2024 a febrero 2025: *Ellas, Nosotras - Beraiek, Geu*

Por otro lado, desde los diferentes museos se han organizado **20 actividades divulgativas** (a veces en colaboración con asociaciones colaboradoras) como charlas, conferencias, presentaciones, talleres o visitas especializadas.

Además, las salas y espacios de los Museos se han cedido para la **organización de actividades externas** en 45 ocasiones.

También se han cedido espacios del Museo de Bellas Artes para grabaciones de programas de radio (3), videoclips (3), sesiones fotográficas (2) o incluso largometrajes (2).

Y finalmente, la **presencia femenina ha sido importante** puesto que ha protagonizado específicamente cinco de las exposiciones temporales y, además, en otras cuatro, las mujeres han tomado parte como artistas y/o comisarias. También su presencia ha sido destacada en las actividades divulgativas organizadas, directa o indirectamente, en los museos.

**2. HELBURUA: Arabako Lurralde Historikoko beste museo batzuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.**

Museoei lotutako hainbat erakunderen finantzaketan laguntzea izendun dirulaguntzen bitartez:

**2.1. ekintza. Museoei edo antzeko zentroei zuzendutako dirulaguntza izendunen kudeaketa.**

Beste ekitaldi batzuetan bezala, aurrekontuetan jasotako dirulaguntzak kudeatu dira:

- ARTIUM Arte Garaikidearen Euskal Museoa. Beste urte batzuetan ezarritako prozedura jarraitu da.

**OBJETIVO 2: Apoyar técnica y económicamente a otros museos del Territorio Histórico de Álava.**

Apoyo a la financiación de diversas instituciones de carácter museístico por medio de la concesión de subvenciones nominativas:

**Acción 2.1. Gestión de las subvenciones nominativas para Museos o centros asimilados.**

Como otros ejercicios, se han gestionado las subvenciones previstas en los presupuestos:

- Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM. Se ha seguido el procedimiento establecido otros años.

## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 333700 MUSEOAK

- Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa. Finantzaketa laguntza izendun gisa izapidetu da.
- Artziniegako Etnografia Museoa. Artziniegako Udalari indarrean dagoen hitzarmenean aurreikusitako finantzaketa eman zaio.
- Varonatarren dorretxea (Villañane, Gaubea). Gaubeako Udalaren aldeko dirulaguntza izenduna izapidetu da, Turismoko Udal Patronatuaren bidez dorrea jendearentzat irekitzea finantzatzeko.

**2.2. ekintza. Museo jardueretarako dirulaguntzen lerroa bultzatzea.**

Museoen eremuarekin lotutako jardueretarako dirulaguntzen deialdi berri bat egin da.

Hiru eskaera aurkeztu dira, eta hirurak finantzatu dira. AMBA (Arte Ederren Museoaren Lagunen Elkartea), ALAVESIA (Arabako Natura Zientzien Museoaren Lagunen Elkartea) eta Urizaharrako Lorenzo Prestamero Etnografi Elkartea dira.

**2.3. ekintza. Aholkularitza eta harremana Arabako museo zentroekin.**

Aiaraldea eskualdeko museoak sustatzeko zenbait ekintza bakarrik egin dira baliabide turistiko gisa ezagutzera emateko, eskualdeko museoen sarea abian jartzeko helburuarekin (Eusko Jaurlaritzaren berariazko finantziazioarekin).

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Oro har, esan dezakegu programatutako helburuak behar bezala bete direla, nahiz eta alderdi batzuk berriz aztertu eta definitu behar diren; beste batzuek, berriz, aurrekontu gehiago eta kudeaketa hobetzea behar dute etorkizuneko ekitaldiei begira.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

- Museo Diocesano de Arte Sacro. Se ha tramitado la financiación como una subvención nominativa.
- Museo Etnográfico de Artziniega. Se ha aportado al Ayto. de Artziniega la financiación prevista por el convenio en vigor.
- Casa-torre de los Varona (Villanañe, Valdegovía). Se ha tramitado la subvención nominativa a favor del Ayuntamiento de Valdegovía para financiar la apertura al público de la torre a través del Patronato Municipal de Turismo.

**Acción 2.2. Impulso a la línea de subvenciones para actividades de carácter museístico.**

Se ha efectuado una nueva convocatoria de subvenciones para actividades relacionadas con el ámbito de los Museos.

Se han presentado tres solicitudes y las tres han sido financiadas: AMBA (Asociación de Amigos del Museo de Bellas Artes); ALAVESIA (Asociación de Amigos del Museo de Ciencias Naturales de Álava); y a la Asociación Etnográfica Lorenzo Prestamero Etnografi Elkartea, de Peñacerrada.

**Acción 2.3. Asesoramiento y relación con centros de carácter museísticos de Álava.**

Únicamente se han realizado diversas acciones de fomento de los museos de la comarca de Aiaraldea para conocimiento como recurso turístico, con el objetivo de poner en marcha una red de Museos comarcal (con financiación específica aportada por el Gobierno Vasco).

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En general podemos considerar que los objetivos programados se han cumplido de forma satisfactoria, aunque existen algunos aspectos que precisan reconsiderarse y redefinirse, mientras que otros, en cambio, requieren refuerzo presupuestario y mejora de gestión de cara a futuros ejercicios.

## 2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 333700 MUSEOAK

**1. HELBURUA.- AFAren museoak eta antzeko zentroak kudeatzea.**

**1.1. ekintza. AFAko museoen zerbitzu kartaren hasierako ezarpena eta jarraipena**

*1.1.1. Bisitarien gogobetetze mailari buruzko inkestak:*

Urteko laburpen dokumentu bat, bisitariengandik (1174) eta taldeetako arduradunengandik (130) jasotako 1304 inkestetatik ateratako ondorioekin.

Batez besteko balioespen oso handiak: 9,36 bisita libreak eta 9,30 bisita gidatuak edo tailerrak.

**1.2. ekintza. Bildumen biltegiratze eta kontserbazio prebentiboko baldintzak hobetzea.**

*1.2.1. Ibilgailuen Zerbitzuan erabilgarri dauden espazioak Kultura eta Kirol Sailari lotzeko txostena:*

Nahiago izan da eskaera atzeratzea, aldez aurretik 1.2.2 puntuan ezarritako proposamenaren bideragarritasuna egiaztatzeko.

*1.2.2. Proposamen arkitektonikoa, balorazio ekonomikoa duena, Ibilgailuen Ataleko ur biltegian kodroak biltegiratzeko orrazien egitura bat instalatzeko:*

Ibilgailuen Ataleko ur biltegian koadroetarako orraziak jartzeko proposamen baloratua egin da. 1618 Estudio de Arquitectura enpresak idatzi du.

**1.3. ekintza. Foru museoetako bilduma iraunkorretarako irisgarritasun baldintzak hobetzeko programa definitzea**

*1.3.1. Museoen arabera baloratutako jarduketen programa:*

K-6 Gestión Cultural erakundeak museo bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egin du. Jarduketa puntual txikiak egin dira, baina museo

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 333700 MUSEOS

**OBJETIVO 1.- Gestionar los Museos y centros asimilados de la DFA.**

**Acción 1.1. Implantación y seguimiento inicial de la Carta de Servicios de los Museos de DFA**

*1.1.1. Encuestas sobre grado de satisfacción de visitantes:*

1 documento resumen anual con las conclusiones obtenidas a partir de las 1304 encuestas recibidas de visitantes (1174) y de responsables de grupos (130).

Valoraciones medias muy altas: 9,36 las visitas libres y 9,30 las visitas guiadas o talleres.

**Acción 1.2. Mejora de las condiciones de almacenaje y conservación preventiva de las colecciones.**

*1.2.1. Informe para la vinculación al Dpto. de Cultura y Deporte de los espacios disponibles en Parque Móvil:*

Se ha preferido posponer la solicitud para previamente contrastar la viabilidad de la propuesta establecida en 1.2.2.

*1.2.2. Propuesta arquitectónica con valoración económica para la instalación de una estructura de almacenaje de peines para cuadros en el Depósito de Aguas del Parque Móvil:*

Se ha elaborado una propuesta valorada para una instalación de peines para cuadros en el Depósito de Aguas del Parque Móvil. Ha sido redactada por 1618 Estudio de Arquitectura.

**Acción 1.3. Definición de un programa de mejora de las condiciones de accesibilidad en las colecciones permanentes de los Museos forales**

*1.3.1. Programa de actuaciones valoradas por museos:*

Se cuenta con el diagnóstico de la situación de cada museo elaborado por K-6 Gestión Cultural. Se han efectuado pequeñas actuaciones puntuales, pero falta por definir

bakoitzerako jarduketa plan xehatua zehazteke dago.

**1.4. ekintza. Arabako museoen eta kultura ondarearen bildumak zabaltzea.**

*1.4.1. Eskainitako jardueretako parte hartzaile kopuruaren hazkundearen ehunekoa:*

% 10koko hazkundea.

543 bisita gidatu eta tailer egin dira foru museoetan, , eta partaidetza handiagoa izan da orokorrean (19.312 pertsona). Horrek oso balantze orokor positiboa ematen du:

- Generoaren arabera: % 52,43 emakumeak.
- Hizkuntzaren arabera: % 41,44 euskaraz eta % 58,56 gaztelaniaz.
- Jatorriari dagokionez, Araba nabarmentzen da (% 90 baino gehiago).
- Hartzaileen arabera, eskola-eremuko parte-hartzaileak dira nagusi ( % 63,38) familiaren edo helduen aldean, normalean talde txikiagoetan joaten baitira.

*1.4.2. Museoetan antolatutako aldi baterako erakusketen kopurua:*

Formatu eta eduki desberdinetako aldi baterako 11 erakusketa antolatu dira. Museoka, bi Arte Ederren Museoan izan dira; beste bi, Natura Zientzien Museoan; bost, BIBAT- Arkeologia Museoan; eta bi, BIBAT- Fournier Karta Museoan.

*1.4.3. Amarika Aretoko erakusketa kopurua:*

Zortzi erakusketa antolatu dira, areto nagusian zein areto txikian.

*1.4.4. Foru museoetara bisita gehiago, aurreko urtearekin alderatuta:*

2024an, AFAren museoetara eta bertako zentro elkartuetara egindako bisiten goranzko



un plan de actuación detallado para cada museo.

**Acción 1.4. Difusión de las colecciones de los Museos y del patrimonio cultural en Álava.**

*1.4.1. Porcentaje de incremento en el número de participantes en actividades ofertadas:*

Incremento de un 10% en la participación.

Se ha realizado 543 visitas guiadas y talleres en los museos forales, con una mayor participación global (19.312 personas) que el año anterior, lo que arroja un balance positivo:

- Por género: 52,43% mujeres.
- Por idioma, un 41,44% en euskera, y un 58,56% en castellano
- Por procedencia, destaca abrumadoramente Álava (más del 90%).
- Por destinatarios, existen un cierto predominio de participantes procedentes del ámbito escolar (un 63,38%) frente al público familiar o adulto, que normalmente acude en grupos menos numerosos.

*1.4.2. Numero de exposiciones temporales organizadas en los museos:*

Se han organizado 11 exposiciones temporales nuevas de diferentes formatos y contenidos. Por museos, han sido dos en Bellas Artes; otras dos, en Ciencias Naturales; cinco en BIBAT-Arqueología; y dos en BIBAT-Fournier de Naipes.

*1.4.3. Número de exposiciones en Sala Amárica:*

Se han organizado ocho exposiciones, tanto en la sala principal como en la sala pequeña.

*1.4.4 Aumento de visitas a los museos forales respecto del año anterior:*

En 2024 se ha detenido la tendencia al alza en las visitas a los museos de la DFA y a sus

joera gelditu da. Hala, 2023an 131.320 bisita erregistratu ziren, eta aurten, berriz, 2024an, 130.407 bisitari baino ez ditugu izan, hau da, % 0,70eko beherakada txiki bat.

*1.4.5. Emakumeen ehunekoa zentroetako erabiltzaileen artean:*

Emakumeen presentzia eta partaidetza zertxobait handiagoa da oraindik ere foru-museoetan antolatutako jarduera guztietan, eta % 52 ingurukoa da batez beste.

*1.4.6. Merchandising produktuen fakturazio aldakuntza:*

Foru museoetako oroigarri edo merchandising produktuen salmentak 4.383,04 € izan dira, 2022an saldutakoa baino % 4,7 gutxiago.

*1.4.7. Kanpo antolamenduko ekitaldietarako aretoak lagatzea:*

Museoetako aretoak eta espazioak 45 aldiz laga dira kanpoko jarduerak antolatzeko.

*1.4.8. Emakumeen protagonismoa duten jardueren ehunekoa:*

Emakumeen presentzia garrantzitsua izan da, antolatutako lau erakusketen protagonista izan baitira, eta, gainera, beste bitan, emakumeek artista eta komisario gisa hartu dute parte. Museoetan zuzenean edo zeharka antolatutako dibulgazio jardueretan ere nabarmendu da haren presentzia. Haren protagonismoa % 35 ingurukoa dela esan dezakegu.

**2. HELBURUA: Arabako Lurralde Historikoko beste museo batzuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.**

**2.1. ekintza. Museoei edo antzeko zentroei zuzendutako dirulaguntza izendunen kudeaketa.**



centros asociados. Así, frente a las 131.320 visitas registradas en 2023, este año 2024 hemos recibido únicamente 130.407 visitantes, lo que supone un ligero descenso del 0,70%.

*1.4.5. Porcentaje de mujeres entre los usuarios de los centros:*

La presencia y participación de las mujeres continúa siendo ligeramente mayoritaria en todas las actividades organizadas en los Museos forales, y alcanza una media en torno al 52%.

*1.4.6. Variación de facturación de productos de merchandising:*

Las ventas de productos de recuerdo o merchandising realizadas en los Museos forales han supuesto 4.383,04 €, un 4,7% menos de lo vendido en 2023.

*1.4.7. Cesiones de salas para eventos de organización externa:*

Las salas y espacios de los museos se han cedido para la organización de actividades externas en 45 ocasiones.

*1.4.8. Porcentaje de actividades con protagonismo femenino:*

La presencia femenina ha sido importante puesto que ha protagonizado específicamente cuatro de las exposiciones organizadas y, además, en otras dos, las mujeres han tomado parte como artistas y comisarias. También su presencia ha sido destacada en las actividades divulgativas organizadas, directa o indirectamente, en los museos. Podemos estimar su protagonismo en torno a un 35%.

**OBJETIVO 2: Apoyar técnica y económicamente a otros museos del Territorio Histórico de Álava.**

**Acción 2.1. Gestión de las subvenciones nominativas para Museos o centros asimilados.**

*2.1.1. Dirulaguntza izendunetarako egikaritutako aurrekontuaren ehunekoa:*

Aurrekontuaren % 100. Beste ekitaldi batzuetan bezala, aurrekontuetan jasotako dirulaguntzak kudeatu dira:

- ARTIUM Arte Garaikidearen Euskal Museoa.
- Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa.
- Artziniegako Etnografia Museoa.
- Varonatarren dorretxea.

**2.2. ekintza. Museo izaerako jarduera osagarrientzako dirulaguntza lerroa sustatzea.**

*2.2.1. Museo jarduera osagarrientzako dirulaguntzen deialdia:*

Hiru dirulaguntza eman dira eta aurrekontuaren % 70 egikaritu da, aurreikusitako programak ez betetzeagatik.

**2.3. ekintza. Aholkularitza Arabako museo zentroei.**

*2.3.1. Jardueraren jarraipena egiteko izandako kontaktuak:*

Aiarako Kuadrillako museoekin baino ez dira harremanetan jarri, Aiaraldeko Museoen ibilbide turistikoa ezartzeko testuinguruan.



*2.1.1. Porcentaje del presupuesto ejecutado para subvenciones nominativas:*

100 % del presupuesto. Como otros ejercicios, se han gestionado las subvenciones previstas en los presupuestos:

- Museo Vasco de Arte Contemporáneo ARTIUM.
- Museo Diocesano de Arte Sacro.
- Museo Etnográfico de Artziniega.
- Casa-torre de los Varona.

**Acción 2.2. Impulso a la línea de subvenciones para actividades complementarias de carácter museístico.**

*2.2.1. Convocatoria de subvenciones para actividades complementarias de carácter museístico:*

Tres subvenciones concedidas, con un 70% del presupuesto ejecutado, por incumplimiento de los programas previstos.

**Acción 2.3. Asesoramiento a centros de carácter museísticos de Álava.**

*2.3.1. Contactos mantenidos para realizar seguimiento de actividad:*

Sólo se han realizado contactos en este sentido con los museos de la Cuadrilla de Ayala, en el contexto del establecimiento de la ruta turística de los Museos de Aiaraldea.